

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Zerri berdinbatzen ditu zuhaitzak, idazgarriak.
2. Piarresek zer egin zuen bere buruarekin.
3. Zer lore edo lili mota heldu ziren otsailan? Martxoan? Aipatzen dituzue koniak.

② UDABERRIA .2.

Piarres

Osin-zilo<sup>6</sup> handietarat heltzen zirenean, sahaska<sup>7</sup> kurumilkatzen ziren, beren adar eta aldaskak ile handi batzu bezala luzatuz, ile hek elgarrekin nahasiz. Bet betan, xut xuta emaiten ziren, Basajauna iduri, leihorretarat berriz igan nahi balute bezala. Eta gero, ur handiak berriz hartuak eta iretsiak, zehatuak<sup>8</sup> bazoazin, errobiak<sup>9</sup> norat ere nahi baitzuen eta harat.

Eta Piarresek, ur-bazterrean phago handieri begira bulta bat eramanik, bere buruarekin egin zuen, zuhaitz handienak errobiak bezala, gizonik hazkarrenak —gogo-kontra balinbada ere— deramatzakala biziak, edo hobeki Jainkoak. Eta ilhundura zerbeit sartu zitzaion bihotzean; bainan, gizonago sumatu zuen bere burua, girixtinoago bere arima. Jainkoak lur hunen gainean zabaltzen duen liburuan irakurtzen holaxet ikasten ari zen, egun guzietz pitta bat gehiago.

Urak sartu ziren gero, handik aski laster. Otsailan jada, usainik gabeko lore urdin brioletak<sup>10</sup> heldu ziren non nahi, eskualdun lurra ikusi nahiz, zango mehar batzuen gainean luxatuz. Martxoan, Andredena-Mari lili tikiak, xuri, hori eta gorri; hala hala, begi handiak idi-mihiak, eta suge-belharrak. Neguan baino pullitago eta muskerrago beren buruak eginez, arbola ondoetan, intha bazterretan agerian emaiten ziren orai xirak<sup>11</sup> eta gooldiak. Xira hoik partida zituen Piarresek, arbolaren odol-jale batzuentzat zauzkalakotz, eta puda ukaldi bat baino gehiago emaiten zioten, ahal zuen aldi guzietz. Zonbat jende, lur gainean, xira bezala bertzeen gostuz bizi direnak, bertze hoier odola jaten diotela egun oroz!...

Paparo-gorriez<sup>12</sup> bertze xoririk ageri zen orai bazterretan. Tiu, tui, tiu, okila<sup>13</sup>, sistakoan, bazabilan arbola batetarik bertzera, ametz-ondoeri mokoaz kaskaka, larru-axalaren azpian mamutxa<sup>14</sup> zerbeit atxeman beharrez, edo orobat —behar bada— arbola baten barnean mila urthe huntan preso gathibu omen dagon basu-anderea handik athera beharrez...

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. nahi balute      32. bazoazin  
33. deramatzakala      34. zauzkalakotz.  
35. dagon.

31. UKAN. Suppositif. Eventualité prochaine - 1<sup>ère</sup> forme

<u>Objet singulier</u>	<u>Objet pluriel</u>
Nik banu = (nijel'avais)	banitu = (nijiles'avais)
Hik bahu :	bahitu =
Zuk bazinu :	bazinitu =
Harek balu :	balitu =
Guk baginu :	baginitu = etc.
Zuek bazinute :	bazinituzte =
Heiek balute : 'ils l'avait	balituzte : 'ils les avaient

32. JOAN Aller - Indicatif =

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni noa = (je vais)	nindoan = (j'allais)
Hi noa =	hindoan =
Zu zoatzi =	zinoatzin =
Hura doa = etc.	zoan = etc.
Gu goatzi =	ginoatzin =
Zuek zoatze =	zinoatzen =
Heiek doatzi : ils vont	zoatzen : ils allaient

33 ERAMAN = Emporter. Potentiel.

<u>Objet singulier</u>	<u>Objet pluriel</u>
Nik deramakete = je peux	N. deramatzagket = je peux les emporter
Hik deramakete =	H. deramatzagket =
Zuk deramakezu =	Z. deramatzagketzu =
Harek deramake =	H. deramatzagke = deramatzake (-la)
Guk deramakegu =	G. deramatzagkegu = etc.
Zuek deramakezue = etc.	Z. deramatzagketzue =
Heiek deramakete = ils peuvent l'emporter	H. deramatzagkete = ils peuvent les emporter.

34. EDUKI. Tenir = Indicatif Imparfait - Pluriel

Heiek = eux = les.

Nik nauzkan = je les tenais
Hik nauzkan = tu les tenais
Zuk zinuzkan = vous les teniez
Harek zauzkan = il les tenait
Guk ginuzkan = nous les tenions
Zuek zinuzkaten = vous les teniez
Heiek zauzkaten = ils les tenaient